


ERANSKINAK

1. ERANSKINA: BIDEOEN ANALISIA

Dantzak bai eskoletan bai eskoletatik kanpo sarean duten presentzia aztertu eta zenbait emaitza lortu ditut.


Esan beharra dago aztertutako eskolak eta dantza taldeak bertakoak direla; hau da, aztertutako talde denak Euskal Autonomia Erkidegokoak, Nafarroakoak edota Iparraldekoak dira.

Eskoletako dantzak aztertzean zenbait datu lortu ditut; eta datu horiek zenbait irizpideren arabera sailkatu ditut. Datuak sailkatu ostean ondorengo emaitzak lortu ditut:




1. grafikoa: Zein eskolek erabiltzen dute sarea haien dantzak erakusteko?

Grafiko honetan (1. grafikoa) agertzen diren emaitzei erreparatuz, esan dezakegu, ez direla eskola askoren bideoak agertzen. Grafiko honetan (1. grafikoa) 26 eskola desberdinek beraien bideoak Interneten eskegitzen dituztela konprobatu ahal izan dugu. Eskola gehienek bideo gutxi eskegitzen dituzte; izan ere oso portzentaje baxuak baitira grafiko honetako (1. grafikoa) gehienak. Hala ere, badaude eskola hauen artean bideo gehiago eskegitzen dituztenak; horien artean aipagarrienak Iruneko Belaskoenea eskola eta Sodupeko Avellaneda eskola direlarik.



2. grafikoa: Eskoletan zein ekintza motetan egiten dituzte dantza hauek?

Eskoletan dantza hauek hainbat arrazoi medio direla egiten dituzte; grafikoa (2. grafikoa) ikus daitezkeen bezala ohikoenak ikuskizunak, inauteriak, entseguak, euskararen alde egiten direnak, musika irakasgaikoak, euskararen egunekoak, kultur elkarte batekoak, gorputz hezkuntzakoak eta egun berezietakoak dira. Grafiko honi esker (2. grafikoa), argi ikus dezakegu, eskolan egiten diren dantza gehienak ikuskizunetan egiten direla, hau da, Gabonetako ikuskizunetan, kurtso amaierako ikuskizunetan eta antzeakoetan. Gainera, inauterietan eskolan oso ohikoa da dantzak egitea. Horrez gain, aipatu beharra dago zenbait eskolek haiek egiten dituzten entseguen bideoak eskegitzen dituztela sarean.




3. grafikoa: Zein izaten da ikasleen dantza horiek egiteko erabiltzen duten dantzatokia?

Grafiko honi (3. grafikoa) erreparatuz, esan dezakegu bideo gehienek dantzak eskolan egiten direla erakusten dutela. Bideo gehienak eskolako gelan, gimnasioan edo patioan grabatutakoak dira. Hala ere, badaude eskola batzuek herriko instalazioez baliatzen direnak beraien ikuskizunak eskaintzeko. Hala gertatzen den kasuetan, gehienak pilotalekuetan, herriko plazetan, aretoetan edo beste edozein eszenatokietan aritu ohi dira. Eskolak eskaintzen dituen lekuetan zentratuz, gehien erabiltzen dena patioa da eta ondoren gimnasioa.


Behin eskoletako bideoak aztertuta, dantza talde ezberdinen zenbait bideo ere aztertu ditugu. Bideo horiek ekintza motaren arabera sailkatu dira eta ondorengo kategoriak desberdindu ditugu: dantza taldeen emanaldiak; musika talde baten grabazioa, koro baten emanaldia, karaoke bat edo partitura bat; dantza tailerra edo tutoriala; erromeria eta dantza talde baten entsegua.

Ondorengo emaitzak lortu ditugu:




4. grafikoa: Axuri Beltza

Grafiko honetan (4. grafikoa) ikus daiteke lau kategoria agertzen direla. Horien artean, bik dute nagusitasuna; batetik dantza taldeen emanaldien kategoriak eta bestetik musika talde baten grabazio, koro baten emanaldi, karaoke bat eta partitura baten kategoriak. Bilaketan erdia baino gehiago emanaldiak dira. Gainera, nagusi den beste kategoriari dagozkion bideoak ere hainbat dira; izan ere dantza hau letra duen bakarretakoa baita; orduan, kategoria horretako bideo asko koroen emanaldiak dira.



5. grafikoa: Polka Pik


Grafiko honetan (5. grafikoa), bilaketen erdia baino gehiago dantza taldeen emanaldiak izan dira. Bestalde musika talde baten grabazioa, koro baten emanaldia, karaoke bat edo partitura bat izeneko kategoriari dagozkion bilaketak ere makina bat dira. Beste bi kategoriei dagozkien bilaketak antzekoak izan dira, eta beste dantzen grafikoekin konparatuz erromeriaren alorreko zenbait bideo aurkitu dira. Esan beharra daukat, dantza hau oso zabaldua dagoela Euskal Herrian eta oso arraroa iruditu zaidala dantza hau erromerietan dantzatzen duten bideo gehiago ez aurkitzea.



6. grafikoa: Nafarroa beheko martxa


Grafiko honek (6. grafikoa) erakusten digunez, dantza honen inguruan aurkitutako bideoak denak hiru kategorietan desberdintzen dira. Aurrekoekin gertatu den bezalaxe,

bilaketen erdia baino gehiago dantza taldeen emanaldien kategoriari dagokio. Horrez gain, gainerako beste bilaketa ia guztiak musika talde baten grabazio, koro baten emanaldi, karaoke bat edo partitura baten kategoriari dagozkio.




7. grafikoa: Fandangoa

Fandangoaren kasuan ere aurreko kasu guztietan bezalaxe, bi kategoria nagusi desberdintzen dira; alde batetik, dantza taldeen emanaldiena eta bestetik, musika taldeen grabazio, koro baten emanaldi, karaoke edo partituren kategoria. Kasu honetan, bilaketen erdia baino gehiago dantza taldeen emanaldiak dira. Dantza honen kasuan, esan beharra dago, arraroa dela, erromerietako hain bideo gutxi aurkitzea; izan ere, erromerietan hainbat fandango dantzaten baitira, arin arinekin batera.




8. grafikoa: Arin arina

Dantza honen kasuan lau kategoria desberdintzen dira, dantza taldeen emanaldiei dagokiona, dantza tailer edo tutorialari dagokiona, dantza talde baten entseguari dagokiona eta musika talde baten grabazio, koro baten emanaldi, karaoke bat edo partitura baten kategoriari dagokiona. Kasu honetan, oso nabarmena da dantza taldeen emanaldiari dagokion kategoriaren nagusitasuna. Berriz, gainerako kategorien portzentajeak antzekoak dira. Kasu honetan oso arraroa iruditzen zait arin – arinen musika grabazio gehiago ez aurkitu izana. Gainera, fandangoarekin gertatzen den bezalaxe, arin – arina erromerietan egiten den dantza ohikoa izanez, arraroa da, erromerietako bideorik ez aurkitu izana.




9. grafikoa: Fasioren martxea

Grafiko honetan (9. grafikoa) argia da bi kategorien nagusitasuna. Nagusitasun hori dantza taldeen emanaldien kategoriak eta musika talde baten grabazio, koro baten emanaldi, karaoke bat edo partitura baten kategoriak dute. Kasu honetan, bilaketen erdia baino gehiago aipatutako bigarren kategoriari dagozkio. Kategoria honetaz gain, dantza emanaldiei dagokiona ere zabala da. Gainerako bideoak erromerietako grabazioak dira. Dantza honekin lotuta erromerietako hainbat bideo topatzea espero nuen nik; izan ere, ohikoak baitira kalejirak erromerietan.



10. grafikoa: Zazpi jauziak


Dantza honen kasuan, kategorien arteko berdintasun gehiago dago. Esan beharra dago, nagusitzen den kategoria musika talde baten grabazio, koro baten emanaldi, karaoke bat edo partitura bati dagokiona dela. Deigarria da kasu honetan dantza taldeen emanaldien kategoriari eta erromerien kategoriari dagozkien portzentajeak hain antzekoak izatea. Portzentaje horien arrazoa ondorengo izan daiteke: zazpi jauziak dantza oso zabaldua dago gaur egun Euskal herrian, eta gehienetan ikuskizunetan baino gehiago erromerietan dantzatu ohi dutela.



11. grafikoa: Aintzina pika


Dantza honen kasuan bilaketan 3/4k kategoria berdin batean sartzen dira, dantza taldeen emanaldiei dagokion horretan, hain zuzen ere. Musika taldeen grabazio, koro baten

emanaldi, karaoke eta partiturari dagokion kategoriako bilaketak nahiko eskasak izan dira.




12. grafikoa: Esku dantza

Grafiko honi (12. grafikoa) erreparatuz, aurrekoetan baino kategoria gehiago desberdindu daitezke. Esan beharra dago, berriro ere nagusi direla dantza taldeen emanaldiak. Hala ere, kategoria honetako eta musika taldeen grabazio, koro baten emanaldi, karaoke edo partitura bati dagokion kategoriako portzentajeak antzekoak dira. Horrez gain, topatutako bideo asko dantza taldeen entseguak edo dantza tailer edo tutorialak dira. Dantza hau erromerietan dantzatzen erakusten duten zenbait bideo ere bildu dira.




13. grafikoa: Bolant dantza

Dantza honen kasuan aurkitutako bideo guztiak bi kategoriatan sartzen dira; batetik, musika talde baten grabazio, koro baten emanaldi, karaoke edo partituraren kategorian eta bestetik dantza taldeen emanaldien kategorian. Bilaketa ia guztiak bigarren kategoria horretakoak dira.




14. grafikoa: Txulalai

Dantza honen kasuan, kategoria guztietako bideoak aurkitu dira. Bilaketan erdia baino gehiago dantza taldeen emanaldiei dagozkie. Gainerako bilaketak antzeko era batean banatzen dira beste kategorien artean. Dantza taldeen emanaldien bilaketak alde batera utziz; bigarren kategoriarik aberatsena erromeriei dagokiena da. Dantza hau, zazpi jauziak beste zenbait bezala, nahiko hedatua dago Euskal Herrian, eta dantza erraza den neurrian, askotan dantzatzen da erromerietan. Horrez gain, zenbait dantza tailer eta tutorial daudela ere azpimarratu beharra dago.




15. grafikoa: 1. kontradantza

Dantza honen kasuan, nabarmena da dantza taldeen emanaldiei dagokien nagusitasuna. Horrez gain, musika taldeen grabazioak eta dantza tailer edo tutorialak ere badaude. Hala ere, aipatu behar da musika taldeen grabazioak dantza honen kasuan oso eskasak direla.




16. grafikoa: 2. kontradantza

2. kontradantzaren kasuan, aurreko kontradantzarekin gertatzen den bezalaxe, bideo ia guztiek dantza taldeen emanaldiak erakusten dituzte. Hala ere, badira dantza honen musika grabazio gutxi batzuk ere. Esan beharra dago, hala ere, kontradantzen bideo gutxi aurkitu ditudala.




17. grafikoa: 3. kontradantza

3. kontradantzarekin 2. kontradantzarekin gertatzen den gauza bera ematen da. Bideo gutxi aurkitu ditut eta horien artean gehienak dantza taldeen emanaldiak dira; hala ere, gutxi batzuk musika taldeen grabazioak dira.



18. grafikoa: 4. kontradantza

Dantza honen kasuan, bideo guztiak bi kategoria ezberdinetan sartzen dira. Batetik, ia bideo guztiak dantza taldeen emanaldiak dira. Bestalde, musika taldeen grabazioak ere aurkitu ditut eta kasu honetan musika taldeen grabazio horiek aurreko kontradantzetan baino ugariagoak dira, nahiz eta ez diren asko ere ez.



19. grafikoa: Dantza taldeetako emaitzak orokorrean

Grafiko honetan (19. grafikoa) ikus daitekeenez, dantza taldeen artean, eskolen kasuan bezalaxe, gehiago dira emanaldiak edota ikuskizunak. Interneten egindako bilaketen erdia baino gehiago ikuskizunak dira; konkretuki %61a hartzen du kategoria horrek. Ikuskizunekin batera nagusitzen den beste kategoria musika talde baten grabazio, koro baten emanaldi, karaoke bat edo partitura bat izenekoa da, zehazki bilaketen %27a dago multzo honetan.

Horrez gain, beste kategoria batzuetako bideoak ere badaude, nahiz eta horiek oso gutxi izan. Horrela, herri desberdinetako festetan, plazan edo beste leku batean egiten diren erromerien kategoriari bilaketen %6a dagokio eta jendeak beraiek grabatutako eta igotako tutorialen edo dantza tailerren kategoriari %5a. Horrez gain, dantza talde baten edo beste baten entseguak ere aurkitu ditut; horiek bilaketa guztien %1a direlarik.

2. ERANSKINA: BIDEOEN BEHAKETA

<u>HUARTEKO VIRGEN BLANCA ESKOLAKO 1. MAILAKO IKASLEEN POLKA PIK DANTZAREN AZTERKETA</u>	
DANTZAREN IZENA	Bideo honetako dantzaren izena Polka pik da. Jatorriz Nafarroako Luzaide herrian dantzatzen da. Dantza hau inauteri garaian egiten da borobilean eta bikoteka jarrita. Luzaiden inauterietan egiten den dantza bat denez, herri horretan garai batean gainerako dantzak egiteko erabiltzen den arropa erabiltzea litzateke egokiena, hala ere ez dago dantza honetarako janzkera konkretu bat.
ZEIN FUNTZIO IZAN DEZAKE BIDEO HONETAN IKUSITAKO DANTZAK? (KULTURALA, SOZIOKULTURALA, ONDAREA MANTENTZEKOA, ...)	Bideo honetan zenbait ikasle dantzan ikusita, esan beharra dago, dantzaren funtzioa azkenean kulturala dela; izan ere ikasleek dantza hauek ikasten eta erakusten baitituzte.
ESKOLAN NOLA LANTZEN EDO NOLA EGITEN DUTE DANTZA HAU?	Eskolako ikasleek dantza ez dute den bezala egiten; baizik eta pixka bat moldatuta ikasi dute. Lehenengo atala den moduan ikasi dute baina bigarrena aldatu egin dute, erraztu egin dute. Atal horretan bikote bakoitzak zirkuluan aurrera eginez bueltak eman behar dituzte. Bideo honetan bikotea osatzen duten pertsonen arteko joko bat egiten dute.
CURRICULUMARI DAGOKIOEZ, ARTE HEZKUNTZAKO ZEIN EDUKI MULTZO LANTZEN DA?	Kasu honetan, curriculumeko 2. eduki multzoa lantzen da; hain zuzen ere musika-adierazpena, -interpretazioa eta –sorkuntza izenez ezagutzen dena.

<p>EDUKI MULTZO BAKOITZEKO ZEIN EDUKI LANTZEN DA?</p>	<p>Ikusita bideo honetan dantza egiten duten ikasleak 1. mailakoak direla dantza honekin ondorengo edukiak landuko lituzkete: Euskal kultura-ondarearen dantzetako bat, dantza errazen oinarrizko tekniken praktikatzea eta gorputz-adierazpenarekin gozatzea.</p>
<p>ZEIN HELBURU BETE DAITEZKE DANTZA HORRETAN AGERI DIREN EDUKIEN LANKETAREKIN?</p>	<p>Eskolan ikasleekin dantza hau lantzean ondorengo helburuak lor daitezke: Musika-kulturako produktuek ideiak, sentimenduak eta bizipenak jakinarazteko eta adierazteko eskaintzen dituzten aukerak ulertzea eta produktu horiek Euskal Herriko ondarea eratzen duten elementutzat hartzea, eta, horrela, artea eta kultura ezagutzen, balioesten eta gozaten ikastea.</p>
<p>DANTZA HONEK IKASLEAREN GARAPENEAN LAGUNDU DEZAKEEN ZEIN EKARPEN EGITEN DIE HEZKUNTZAKO GAITASUN OROKORREI?</p>	<p>Komunikazio gaitasunari dagokionez, ikasleak, dantzaren bidez beste era batera ezin komunikatu ditzakeen emozioak komunikatu ditzake. Dantza ekintza aktibo bat denez, egiten eta ekiten ikasteko gaitasunari laguntzen dio. Norbera izaten ikasteari dagokionez, dantza egiteko gorputza erabiltzen dugunez ikasleentzat beharrezkoa izango da bere burua eta bere gorputza ezagutzea. Elkarbizitzen ikasteari dagokionez, ikasleek dantza bikoteka egiten dutenez, bakoitzak bere bikotearekin koordinatzen jakin beharko du, horrek gutasuna eta taldekidetasuna bultzatzen duelarik.</p>
<p>INTERNETEKO BIDEO HONEK ZEIN ABANTAILA DAKARTZA DANTZA LANTZERAKO ORDUAN?</p>	<p>Ikasleek dantza ikasteaz gain, Interneteko bideo batean ikusten badute, dantza inguratzen duten beste hainbat aspektu ezagutzeko aukera izango dute; hau da, zein arrokekin egiten duten dantza, nola egiten duten dantza, nola kokatzen diren dantza egiteko, non egiten den, ...</p>

<u>IRUÑA DANTZA TALDEKO POLKA PIK DANTZAREN AZTERKETA</u>	
DANTZAREN IZENA	Bideo honetan ageri den dantzaren izena Polka pik da. Jatorriz Nafarroako Luzaide herrian dantzatzen da. Dantza hau inauteri garaian egiten da borobilean eta bikoteka jarrita. Luzaiden inauterietan egiten den dantza batenez, herri horretan garai batean gainerako dantzak egiteko erabiltzen den arropa erabiltzea litzateke egokiena, hala ere ez dago dantza honetarako janzkera konkretu bat.
ZEIN FUNTZIO IZAN DEZAKE BIDEO HONETAN IKUSITAKO DANTZAK? (KULTURALA, SOZIOKULTURALA, ONDAREA MANTENTZEKOA...)	Bideo honen lanketaren funtzio nagusia kulturala edota ondarea mantentzekoa litzateke; izan ere, bideoan dantza ezagutzeaz gain, Euskal Herriko zonalde batetako musika mota eta dantza ezagutu ditzakegu. Ondare kulturala mantentzeko funtzioa betetzen dutela esaten dugu, dantza hauez gain, beste batzuk ere ikasten dituztelako dantza taldeko kideek.
ESKOLAN DANTZA HAU LANTZEA ERRAZA LITZATEKE BERE PAUSOAK EDO ALDE TEKNIKOA IKUSITA?	Eskolan ikasle txikiekin lantzeko ere dantza erraza da. Bi atal nagusi ditu; batean orpoarekin eta oin puntarekin jolas bat egiten da eta bestean berriz bueltak ematen dira. Dantza errepikakorra izateak ere lagundu dezake umeez errazago ikas dezaten; izan ere, aipatutako bi atalak errepikatzen baitira behin eta berriz.
CURRICULUMARI DAGOKIONEZ, ARTE HEZKUNTZAKO ZEIN EDUKI MULTZO LANTZEN DA?	Kasu honetan, curriculumeko 2. eduki multzoa lantzen da; hain zuzen ere musika-adierazpena, -interpretazioa eta –sorkuntza izenez ezagutzen dena.

<p>EDUKI MULTZO BAKOITZEKO ZEIN EDUKI LANTZEN DA?</p>	<p>Lehen zikloko eduki hauek lantzen dira: euskal kultura-ondarearen dantza bat, mugimenduen edo segida soinudunak dituzten dantza errazen oinarrizko teknikak eta gorputz adierazpenarekin gozatzea.</p> <p>Bigarren ziklotik, berriz, dantzen eta mugimendu-segiden taldeko koordinazioa eta sinkronizazioa eta dantzekiko ardura eta interesa lantzen dira.</p> <p>Hirugarren zikloari dagokionez, taldean interpretatzearena izango litzateke landuko zen edukia.</p>
<p>ZEIN HELBURU BETE DAITEZKE DANTZA HORRETAN AGERI DIREN EDUKIEN LANKETAREKIN?</p>	<p>Dantza hau Euskal Herriko kultura eta ondarea osatzen duen elementua kontsideratu eta hura ezagutu, gozatu eta balioetsi dezakegu. Dantza honen funtzioak eta erabilerak ezagutuz, gure kulturaren dantza horrek izan duen zeregina uler dezakegu.</p>
<p>DANTZA HONEK IKASLEAREN GARAPENEAN LAGUNDU DEZAKEEN ZEIN EKARPEN EGITEN DIE HEZKUNTZAKO GAITASUN OROKORREI?</p>	<p>Komunikazio gaitasunari dagokionez, ikasleak, dantzaren bidez beste era batera ezin komunikatu ditzakeen emozioak agertu ditzake. Dantza ekintza aktiboa den neurrian, egiten eta ekiten ikasteko gaitasunari laguntzen dio. Norbera izaten ikasteari dagokionez, dantzak bakoitzaren burua eta gorputza ezagutzera behartzen gaitu, gorputza erabiltzen baitugu dantza egiteko. Elkarbizitzen ikasteari dagokionez, dantza hau bikoteka egiten denez, bikotearen elkarlana edo koordinazioa eskatzen du.</p>
<p>INTERNETEKO BIDEO HONEK ZEIN ABANTAILA DAKARTZA DANTZA LANTZERAKO ORDUAN?</p>	<p>Dantza hau Interneteko bideoekin lantzerako orduan, dantza nola den ikasteaz gain, dantzaren inguruko zenbait datu jaso ditzakete. Dantza hau sakonago ezagutzera eta hura ikertzera badoaz, informazioa eskuratzen eta hautatzen joan beharko dira eta beraien garapen integralerako ezinbestekoa den informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna garatuko dute.</p>

<u>BELASKOENEA ESKOLAKO 4. MAILAKO IKASLEEN ZAZPI JAUZIAK DANTZAREN AZTERKETA</u>	
DANTZAREN IZENA	<p>Bideo honetan ageri den dantzaren izena Zazpi Jauziak da. Jatorriz, Iparraldean; hau da, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan dantzatzen den dantza da.</p> <p>Denborarekin Euskal Herri osora zabaldu eta dantza herrikoitzat hartu da.</p> <p>Dantza honen errepresentaziorako, dantzariak bai neskak bai mutilak zirkulu batean kokatzen dira. Dantza hau egiteko ez dago janzkera konkretu bat, bakoitzak aukeratutako janzkera erabiltzeko aukera izango lukete.</p>
ZEIN FUNTZIO IZAN DEZAKE BIDEO HONETAN IKUSITAKO DANTZAK? (KULTURALA, SOZIOKULTURALA, ONDAREA MANTENTZEKOA...)	<p>Bideo honetan ikusitako dantzaren funtzioa kulturala da; izan ere, ikasle hauek gure kulturako dantza bat ikasi baitute ikuskizun batean interpretatzeko.</p>
ESKOLAN NOLA LANTZEN EDO NOLA EGITEN DUTE DANTZA HAU?	<p>Eskolan dantza ia den moduan ikasi dute; hala ere pausoetako bat moldatu dute. Lehenengo zatia den bezalaxe ikasi eta interpretatu dute. Bigarren zatiaren pausu bat ikasleentzat errazago gerta dadin, pausua moldatu dute.</p>
CURRICULUMARI DAGOKIONEZ, ARTE HEZKUNTZAKO ZEIN EDUKI MULTZO LANTZEN DA?	<p>Dantza honekin, curriculumeko 2. eduki multzoa lantzen da; musika-adierazpena, -interpretazioa eta -sorkuntza deritzena, alegia.</p>

<p>EDUKI MULTZO BAKOITZEKO ZEIN EDUKI LANTZEN DA?</p>	<p>Bideo honetan dantza egiten duten ikasleak 4. mailan egonda, curriculumak aipatzen dituen hurrengo edukiak landuko lituzkete gehienbat dantza honekin: Dantzen eta mugimendu-segida ezagunen eta asmatuen banakako eta taldeko koordinazioa eta sinkronizazioa eta euskal dantzekiko ardura eta interesa. Gainera, lehenengo eduki hori lantzea garrantzitsua da ikasleek dantza ahalik eta era berdintsuenean egin dezaten</p>
<p>ZEIN HELBURU BETE DAITEZKE DANTZA HORRETAN AGERI DIREN EDUKIEN LANKETAREKIN?</p>	<p>Musika-kulturako produktuek ideiak, sentimenduak eta bizipenak jakinarazteko eta adierazteko eskaintzen dituzten aukerak ulertzea, eta produktu horiek Euskal Herriko ondarea eratzen duten elementutzat hartzea, eta, horrela, artea eta kultura ezagutzen, gozaten eta balioesten laguntzea.</p>
<p>DANTZA HONEK IKASLEAREN GARAPENEAN LAGUNDU DEZAKEEN ZEIN EKARPEN EGITEN DIE HEZKUNTZAKO GAITASUN OROKORREI?</p>	<p>Komunikazio gaitasunari dagokionez, hizkuntzaren bidez adierazi ezin daitezkeen emozioak azaltzeko bideak eskaintzen dizkie dantzek ikasleei. Pentsatzen eta ikasten ikasteko gaitasunari esker, ikasleek dantza memorizatu egiten dute; hau da, azkenean beraien buruak ikasten du dantza. Dantza ekintza aktiboa denez ikasleen ekiten eta egiten ikasteko gaitasunean lagun dezake. Norbera izaten ikasteari dagokionez, gure gorputza eta burua ezagutzea eta onartzea beharrezkoa da dantza egiteko; izan ere gure gorputza baita dantzarako tresna. Elkarrekin bizitzen ikasteari dagokionez, Zazpi Jauziak dantza taldean egiten da, hau da denak batera zirkulu batean kokatuta egiten denez, aukera egokia da ikasleak integratzeko eta taldekidetasuna bultzatzeko.</p>

**INTERNETEKO BIDEO HONEK ZEIN
ABANTAILA DAKARTZA DANTZA
LANTZERAKO ORDUAN?**

Dantza eskolan Interneteko bideoekin landuz gero, dantzaren pausuak ikasteaz gain, dantza hori egiteko kokapena zein den ikasi dezakete, baita dantza hori egiteko dauden era desberdinak ere. Dantza sakonago aztertzeko era ere izango dute sarean; horrela dantzari buruzko xehetasun guztiak ezagutu ahal izango dituztelarik.

<u>ARTAZUKO ETA GARESEKO TORTOTXIKI DANTZA TALDEKO ZAZPI JAUZI DANTZAREN AZTERKETA</u>	
DANTZAREN IZENA	<p>Bideo honetan ageri den dantzaren izena Zazpi Jauziak da. Jatorriz, Iparraldean; hau da, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan dantzatzen den dantza da.</p> <p>Denborarekin Euskal Herri osora zabaldu eta dantza herrikoitzat hartu da.</p> <p>Dantza honen errepresentaziorako, dantzariak bai neskak bai mutilak zirkulu batean kokatzen dira. Dantza hau egiteko ez dago janzkera konkretu bat, talde bakoitzak haiek aukeratutako janzkera erabiltzen dute.</p>
ZEIN FUNTZIO IZAN DEZAKE BIDEO HONETAN IKUSITAKO DANTZAK? (KULTURALA, SOZIOKULTURALA, ONDAREA MANTENTZEKOA...)	<p>Bideo honen funtzio nagusia kulturala izango litzateke; izan ere, gure herrialdeko zonalde bateko musika eta dantza erakusten baitizkigu. Dantza talde baten emanaldia den neurrian, beraien helburua ondarea mantentzea dela ere esan daiteke; izan ere, dantza taldeek gure ondareko dantza desberdin asko ikasten baitituzte.</p>
ESKOLAN DANTZA HAU LANTZEA ERRAZA LITZATEKE BERE PAUSOAK EDO ALDE TEKNIKOA IKUSITA?	<p>Eskolan ikasle txikiekin lantzeko dantza aproposa da; izan ere, dantza taldeetan txikienek dantzatzen baitute dantza hau, normalean. Korroan dantzatzen den dantza honek hiru atal nagusi ditu;</p> <p>batean pausu bera erabiliz, bi norabidetan dantzatzen da; bestean berriz beste pausu bat erabiliz ere bi norabidetan dantzatzen da, azken atalean saltoak ematen dira, buelta bakoitzean salto bat gehiago emanez. Dantza errepikakorra denez, ikasleek ere beste dantza edo koreografia batzuek baino errazago ikas dezakete.</p>
CURRICULUMARI DAGOKIONEZ, ARTE HEZKUNTZAKO ZEIN EDUKI MULTZO LANTZEN DA?	<p>Dantza honekin, curriculumeko 2. eduki multzoa lantzen da; musika-adierazpena, -interpretazioa eta -sorkuntza deritzena, alegia.</p>

<p>EDUKI MULTZO BAKOITZEKO ZEIN EDUKI LANTZEN DA?</p>	<p>Bideo hau ikustean arte hezkuntzako eduki hauek lantzen dira: Lehen zikloan lantzen diren euskal kultura-ondarearen dantza bat eta dantza erraz horren oinarrizko teknikak. Dantza hori egitean gorputz-adierazpenarekin gozatzea ere lantzen da.</p> <p>Bigarren zikloan dantza honetan beharrezkoa den koordinazioa eta sinkronizazioa lantzen dira baita dantza horiekiko interesa eta ardura ere.</p> <p>Hirugarren zikloan, euskal dantza hau eta antzekoak lantzen dira taldean.</p>
<p>ZEIN HELBURU BETE DAITEZKE DANTZA HORRETAN AGERI DIREN EDUKIEN LANKETAREKIN?</p>	<p>Dantza Euskal Herriko kultura eta ondarea osatzen duen elementutzat hartu eta hura ezagutu, gozatu eta balioetsi dezakegu. Dantza honen funtzioak eta erabilerak ezagutzuz, gure kulturaren dantza horrek izan duen eta oraindik duen zeregina ulertu dezakegu.</p>
<p>DANTZA HONEK IKASLEAREN GARAPENEAN LAGUNDU DEZAKEEN ZEIN EKARPEN EGITEN DIE HEZKUNTZAKO GAITASUN OROKORREI?</p>	<p>Dantzaren bidez, ikasleek beraien komunikazio gaitasuna zabaldu dezakete, emozioak hitzez esan beharrean dantzaren bitartez adieraziz. Dantzak hau ikasten doazen neurrian, buruaren eta gorputzaren arteko koordinazioa handituko dute pentsatzen eta ikasten ikasteko gaitasunari dagokionez. Dantza hau egitea beraien burua eta gorputza ezagutzeko aukera paregabea izango da norbera izaten ikasten joango direlarik eta egiten eta ekiten ikasten dela konprobatuko dutelarik. Dantza hau taldean egingo dute era horretan elkarlana eta taldekidetasuna landuko dituzte, elkarbizitzen ikasteko gaitasunari dagokionez.</p>
<p>INTERNETEKO BIDEO HONEK ZEIN ABANTAILA DAKARTZA DANTZA LANTZERAKO ORDUAN?</p>	<p>Dantza hau Interneteko bideo desberdinekin lantzea aberasgarria litzateke ikasleentzat; izan ere, dantza osatzen duten gainerako ezaugarriak ezagutzeko aukera izango baitute teknologia berrien immaterialtasunari esker, hau da, dantza zein forma osatuz egiten den edo zein jantzi eramanez egiten den jakin ahalko dute.</p>

<u>ETXAURRENEKO IKASTOLAKO 1. ZIKLOKO IKASLEEN ZAPATAIN DANTZAREN AZTERKETA</u>	
DANTZAREN IZENA	Bideo honetan ageri den dantzaren izena Zapatain dantza edo Zapatagin dantza da. Zapatagin dantza Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan ematen zen irri dantza dela esan daiteke, testigantza desberdinak bildu baitira Uztaritzen, Luzaiden, Alduden eta Zalgizen. Batzuk diote dantza hau 1900. urte inguruan galdu zela. Hala ere, gaur egun ezagutzen den dantza honen bertsioa Aita Donostiak Violet Alford ikertzaile ingelesaren laguntzaz 1933. urtean argitaratutakoa da. 1929. urtean Ainhoan bildutako bertsio bat da. Zapatagin dantza korroan egiten da. Janzkerari dagokionez, ez dago dantza hau egiteko jantzi konkretu bat.
ZEIN FUNTZIO IZAN DEZAKE BIDEO HONETAN IKUSITAKO DANTZAK? (KULTURALA, SOZIOKULTURALA, ONDAREA MANTENTZEKOA, ...)	Bideo honetako dantza ikusita dantzaren funtzio nagusia kulturala dela esango genuke, azken batean gure kulturaren parte den dantza bat ikasi dute ikuskizun baten bitartez gainerakoei erakusteko.
ESKOLAN NOLA LANTZEN EDO NOLA EGITEN DUTE DANTZA HAU?	Dantza hau eskolan jatorrizkoa bezala dantzatzen dute; hau da, ez dute moldatu errazagoa izan dadin. Hala ere, dantza hau dantza nahiko erraza da ikasle txikienek ere ikasteko.
CURRICULUMARI DAGOKIONEZ, ARTE HEZKUNTZAKO ZEIN EDUKI MULTZO LANTZEN DA?	Bideo honetako dantzarekin, curriculumeko 2. eduki multzoa lantzen da; musika-adierazpena, -interpretazioa eta -sorkuntza izenez ezagutzen dena, hain zuzen ere.

<p>EDUKI MULTZO BAKOITZEKO ZEIN EDUKI LANTZEN DA?</p>	<p>Bideo honetan dantza egiten duten ikasleak 1. ziklokoak direla ikusten da. Orduan, dantza honek curriculumeko hurrengo edukiak lantzeko aukera eskaintzen die: Euskal kultura-ondarearen dantzetako bat, dantza errazen oinarritzko tekniken praktikatzea eta gorputz-adierazpenarekin gozatzea. Gainera, esan beharra dago, dantza honekin dantzarekin lotutako edukiez gain, beste batzuk ere lantzen direla; izan ere, dantza honetan galtzear dagoen lanbide bat azaltzen baita, zapatagilearena, alegia. Orduan, irakasgai desberdinetako edukiak landu daitezke.</p>
<p>ZEIN HELBURU BETE DAITEZKE DANTZA HORRETAN AGERI DIREN EDUKIEN LANKETAREKIN?</p>	<p>Dantzak emozioak adierazteko ematen duen aukera ulertzea helburu inportantea da. Horrekin lotuta, garrantzitsua da, gure ondarea ezagutzea, gozatzea eta balioestea. Gainera, dantza honek gure kultura musikala ezagutzeaz gain, gure arbasoen artean ohikoa zen lanbide bat ezagutzeko aukera ematen die ikasleei.</p>
<p>DANTZA HONEK IKASLEAREN GARAPENEAN LAGUNDU DEZAKEEN ZEIN EKARPEN EGITEN DIE HEZKUNTZAKO GAITASUN OROKORREI?</p>	<p>Dantzaren bidez, ikasleek gaitasun berezi bat landuko dute, denok dugun eta denontzat ezinbestekoa den barne mundu horretako emozioak, sentimenduak, sentsazioak eta oroitzapenak komunikatu ahal izateko. Gainera, dantza egiteak dantzariaren pentsamenduan eta ikasteko gaitasunean eragiten du bai buruak eta bai gorputzak ikasten baitute dantza egiten. Dantza ikasteko egin edo egiten saiatu behar denez, egiten eta ekiten ikasteko gaitasuna lantzeko aukera bikaina da. Norbera izaten ikasteari dagokionez, beharrezkoa izango da haien gorputza eta burua ezagutzea, haien beharra baitute dantza egiteko. Elkarrekin bizitzen ikasteari dagokionez, dantza hau taldean egiten da; beraz, beharrezkoa izango da haien arteko harremana eta koordinazioa dantza ondo irten dadin; horrek taldekidetasuna eta ikasleen integrazioa bultzatuko duen delarik.</p>

**INTERNETEKO BIDEO HONEK ZEIN
ABANTAILA DAKARTZA DANTZA
LANTZERA KO ORDUAN?**

Dantza hau Interneteko bideoekin landuz gero, dantza honetan azaltzen den zapatagileek, zer egiten zuten ezagutzeko eta ulertzeko aukera izango dute; horrela, orain ia galtzear dagoen beste lanbide bat ezagutuko dute. Gainera, dantzaren inguruko xehetasunak ezagutzeko aukera izango dute; hala nola, pausuak, dantzarien kokapena, janzkera, ...

<u>ITXARTU DANTZA TALDEKO ZAPATAIN DANTZAREN AZTERKETA</u>	
DANTZAREN IZENA	<p>Bideo honetan ageri den dantzaren izena Zapatain dantza edo Zapatagin dantza da. Zapatagin dantza Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan ematen zen irri dantza dela esan daiteke, testigantza desberdinak bildu baitira Uztaritzen, Luzaiden, Alduden eta Zalgizen. Batzuk diote dantza hau 1900. urte inguruan galdu zela. Hala ere, gaur egun ezagutzen den dantza honen bertsioa Aita Donostiak Violet Alford ikertzaile ingelesaren laguntzaz 1933. urtean argitaratutakoa da. 1929. urtean Ainhoan bildutako bertsio bat da.</p> <p>Zapatagin dantza korroan egiten da. Janzkerari dagokionez, ez dago dantza hau egiteko jantzi konkretu bat.</p>
ZEIN FUNTZIO IZAN DEZAKE BIDEO HONETAN IKUSITAKO DANTZAK? (KULTURALA, SOZIOKULTURALA, ONDAREA MANTENTZEKOA...)	<p>Bideo honetan ikusitakoaren funtzio nagusia ondarea mantentzekoa izango da; hau da, haur txikiak orain dela urteak egiten zen dantza bat interpretatzen ari dira hurrengo urteetan mantendu dadin eta galdu ez dadin. Gainera, bideo horretan ikusten da gure ondare hori mantentzeko zenbait dantza egiten dituztela, ez Zapatagin Dantza bakarrik.</p> <p>Funtzio kulturala ere aipatu beharra dago, izan ere zonalde bateko musika, dantza eta dantzatzeko era erakusten baitizkigute.</p>
ESKOLAN DANTZA HAU LANTZEA ERRAZA LITZATEKE BERE PAUSOAK EDO ALDE TEKNIKOA IKUSITA?	<p>Eskolan ikasle txikiekin lantzeko dantza erraza da. Hiru atal nagusi ditu; lehenengoan pausu bera erabiliz dantzatzen da baina norabide ezberdinetan; bigarren atalean, keinuekin zapatagilearen lanbidea kontatzen da eta hirugarren atalean, lanbide bera azaltzen jarraitzen da baina abestuz, batik bat.</p>

<p>CURRICULUMARI DAGOKIONEZ, ARTE HEZKUNTZAKO ZEIN EDUKI MULTZO LANTZEN DA?</p>	<p>Bideo honetako dantzarekin, curriculumeko 2. eduki multzoa lantzen da; musika-adierazpena, -interpretazioa eta –sorkuntza izenez ezagutzen dena, hain zuzen ere.</p>
<p>EDUKI MULTZO BAKOITZEKO ZEIN EDUKI LANTZEN DA?</p>	<p>Lehen zikloko eduki hauek lantzen dira dantza honekin: Abesti erraz bat aho batez interpretatzea eta buruz ikastea, euskal ondarearen zati den dantza bat ikastea, ahotsa erabiltzea dantzei laguntzeko, dantza errazen oinarritzko teknikak eta gorputz-adierazpenarekin gozatzea.</p> <p>Bigarren zikloari dagokionez, taldeko koordinazioa eta sinkronizazioa landuko lirateke, baita euskal dantzekiko interesa eta ardura ere.</p> <p>Hirugarren zikloari dagokionez, euskal dantza bat taldean interpretatzea eskatzen duen edukia landuko lukete.</p> <p>Arte hezkuntzako edukiez gain, lanbideekin lotutako edukiak ere lantzen dira dantza honetan; izan ere zapatagilearen lanbidea azaltzen baita; era horretan diziplinartekotasuna landuz.</p>
<p>ZEIN HELBURU BETE DAITEZKE DANTZA HORRETAN AGERI DIREN EDUKIEN LANKETAREKIN?</p>	<p>Dantzak emozioak adierazteko ematen duen aukera ulertzea helburu inportantea da. Horrekin lotuta, garrantzitsua da, gure ondarea ezagutzea, gozatzea eta balioestea. Gainera, dantzaren funtzio soziala zein den jakitea ezinbestekoa dugu dantza honek bai iraganean bai gaur egunean duen zentzua ulertu ahal izateko.</p>

<p style="text-align: center;">DANTZA HONEK IKASLEAREN GARAPENEAN LAGUNDU DEZAKEEN ZEIN EKARPEN EGITEN DIE HEZKUNTZAKO GAITASUN OROKORREI?</p>	<p>Ikasleek dantzaren bidez komunikatzen ikas dezakete, horrela beraien komunikazio gaitasuna handituz eta komunikazio era berriak ezagutuz. Dantza hau ondo egin ahal izateko buruz ikasi beharko dituzte dantza pausuak, keinuak eta abestia, beraz horrek haien pentsatzeko eta ikasten ikasteko gaitasunean lagunduko du. Gainera, dantza ekintza aktibo bat den neurrian, gauzak ekiten eta egiten ikasten direla ikusiko dute. Norbera izaten ikasteari dagokionez, dantza egiteko gure buruaren eta gorputzaren arteko koordinazioa behar dugu baina horretarako beharrezkoa izango da gure gorputza eta burua ezagutzea eta onartzea. Dantza hau taldean egiten den neurrian, taldekidetasuna suspertzen da eta ikasleak taldean integratzera laguntzen ditu, elkarbizitzen ikasteko gaitasunari dagokionez.</p>
<p style="text-align: center;">INTERNETEKO BIDEO HONEK ZEIN ABANTAILA DAKARTZA DANTZA LANTZERAKO ORDUAN?</p>	<p>Dantza hauek Interneten bidez ikasteak dantza inguratzen duen guztia ezagutzeko aukera ematen du, dantza sakonki aztertu dezakegu. Gainera, Internet erabiliz, dantza honi buruzko nahi beste informazio eta grabazio topatu ahal izango dituzte ikasleek, era horretan, informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna garatuz.</p>